

Hau ahal da nahi dugun kirola?

Orain dela egun gutxi Austinen korri zen maratoian Hygon Ngetichn helmugaratzeko irudiak ikusi ondoren oso triste gelditu nintzen. Baina benetan txunditu ninduen izan zen irudi horien ondorengo komentarioak entzun eta irakurtzeak. Onartuta atletak egin zuena gainditze borroka handia izan zela, nahiz benetan zer egiten zen jakingo zuenaren zalantzak eduki, ezin dut onartu hau dela gure kirolari gazteei eskatzen ari garena: ondorioei garrantzirik eman gabe giza mugen gainetik esfortzu fisikoak betetzea. Atleta berak, helmugara iritsi eta denbora luze baten ondoren, adierazi zuen azken 2 kilometroez ez zela ezertaz gogoratze. Ba horixe bera da kezkatzen nauena, gertaeraren ondorengo izan ditzaken, edo izan zitzakeen lesioak. Hori gertatu bazitzaion esan esan nahi du bere burmuina denbora batean behar zuen oxigeno baino gutxiago izan zuela, eta horrek zuzenean lesio zerebralak eragin ziezazkiokeen, edo oraindik okerrago heriotza. Noraino iritsi behar du espektakuluak? Ez ahaztu maratoiari izena ematen dion istorioak diola iristerakoan pertsona hil egin zela. Horrelako probetan antolakuntzek zerbitzu medikoetan diru asko gastatzen duela, eta gertatu denarekin, zein lekuetan gelditzen dira zerbitzu horiek?. Are gehiago emakume hori “heroi” bezala izendatzen denean. Non geldituko lirateke sorospen zerbitzuak bere betebeharra bete bazuten, hau da, jaso eta lagundu? Egin eta atleta deskalifikatua izan bazen? Eta ezer itzulezina gertatu balitz? Esperientzi propioa dela eta, badakit zein tentsioan egoten diren, sorospen zerbitzuak, profesionalak eta boluntarioak, eta horregatik asko sumintzen naiz horrelako gertaerak goraipatzen direnean, zentzutasuna eskatu ordez

Dr. Iñaki Arratibel (Kirolaren Medikuntza Espezializatua)

NAN: 15926972R